

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko martxoaren 9a
313. zenbakia. 23. urtea



Lapurtutako umeen bila

Orioko hainbat familia, garai batean ospitaletan lapurtu zituzten umeen auziko biktima direlakoan, gaia ikertzen ari da

05

Orioko kontuak
Aurrekontuak

07

Orioko kontuak
Karkararen kanpaina

11

Aiako berri
Bizi iturri jaia

19

Adarretatik helduta
Goiuri Unanue

26 GURPIL

Bosorrate 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tel: 943 83 88 88 www.26garpil.com http://www.26garpil.com

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarako mundialak

ABESIAN KALEAN Tlf: 943 83 16 57

LUXARBE
igeltzeritza

Igeltentza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisonk gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 57 00

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

HANATORIO ZARAUTZ
ETROFINERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiaroko zerbitzua
* Belatorio gela
* Koroiak, eskalak, tranitzioak...

Araba kalea, 35. Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 49 41
e-mail: hantagil@hantagil.net

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigré Zaldua
aseguru agentea

Ibae Oria, 10 behe-aria
telefonoa: 943 13 47 60
fax: 943 83 57 52
e-mail: zaldua.belator@pagoak.com

Kalkuladenda - Ume arropa

argine

www.lisonet.com/argine
Tel: 943 13 48 89

25ka DESKONTUA FAMILIA
UGARIEI TXARTELAREKIN

edariategia

ANTILLA
jateleku

Norabizi kalea - TEL: 943 83 00 00

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
FATXADEN ERABERRITZEAK
IGOGAILUEN PROIEKTUAK
GREMIO KOORDINAKUNTZA
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGDA, ZARAUTZ
SORJA AGIRRESAROBRE, ARKITEKTOA 635 731722

Automóviles ZARAUTZ

GRUPO EMPRESARIAL

Automóviles y
repuestos para
todos los tipos

ZARAUTZ, TEL: 943 13 13 50

Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

BARAKA
estilo berria

Geltzerak /
Platerak
Plater konbinatuak
Ereko jantza

943 13 15 12
Aizua

GaleBask S.L.
Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

898 810 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 -bajo
20810 ORIO

Igo zaituz haize berrietara!

Galeona I

943890116-677119934
galeona1orio@hotmail.com

Alacantetik Almeriara, kolosala izan arren

1

Periodikuan ikusi ditut, zenbait zifra eta dato, manifa handia atera zela ehun milako pasako; hori hor dago ezin da kendu, ez da hainbeste holakol Orain banoa Almeriarantz, zergatik ta zertarako? urrutirago eraman naute hurbilago gaudelako.

2

Okerragora joango ginela hartua nion tankera, ez zen goxoa funtzionarioak zekarren aurpegikera; gure pausoak gorroto latza sortzen diete gainera, baina hor dago jendetza hori hortxe dago berri bera: egi bat ez da gezur bihurtzen distantzien arabera.

3

Eta jendetza jendetza baina kartzela beti kartzela, eta gozoa gozoa baina krudela beti krudela. Berriro ere apaindu beharra eskaini didaten gela, eta paretan hortxe jarri det argazkiaren papela, askatasuna ikus daitekeen leiho bat balitz bezela.

313

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com**

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
iker Gurrutaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Iñaki Iturain,
Mercedes Osorio,
Goiuri Unanue
eta Nikolas Zendoia

Laguntzaileak

Zigor Esoain

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzzaileak

Cristina Burlacu eta
Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Jon Maia otsailaren 24an, Balea elkartean, Patxi Urangak kartzelatik jarritako gaiari abestuak. KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Udal artxiboa eta oroimen historikoa

Azken urteotan KARKARAKO Oroimenaren Kutxa izeneko atalean ari naiz idazten. Beti, lehengo kontuak, iraganekoak, batzuk oso aspaldikoak, beste batzuk ez horrenbeste. Zeregin horrek behin baino gehiagotan eraman nau udaletxeiko artxibora, han gordeta dauden dokumentu zaharrak aztertzeraz. Horretan, beti izan dut han lanean ari den Arantxa Alonso neska atseginaren laguntza. Eta gauza xeble eta interesgarri askoak aurkitu ere izan ditut inoiz! Gizalegeak agintzen dit udal artxiboan topatutako zerbait darabildanean artikulatu batean, horren aipamena egitea. Kontua da baina, arazoa beti bera izaten dudala: leku falta. Hain zuzen horrexegatik erabaki dut gutun hau idaztea, hemen esanda koarekin kitatuta geratzen zaidalakoan zorra: Eskerrik asko, Arantxa!

Bide batez, aukera baliatu nahi dut herritarrei adierazteko artxibo horretarako bidea zabalik dagoela edozeinentzat, Oriorekin zerikusia duen gairen bat aztertutako nahi duenak bide emankorra izan dezakeela udal artxiboak eskaintzen dituguna. Ondo antolatuta dago, bere baitan sartuak ditu, besteak beste, 1913tik 1958ra bitartean izan diren udalbatzarren aktak. Eta akta horietan bilatzeko, sistema baliotsua eta erraza dago ezarria. Oroimen historikoa horrenbeste aipatzen den garaiotan, horra tresna interesgarri askoa!

Hori bai, iraganaz idazteko, dokumentuak bezain tresna baliagarria da jendearen gogoan iltzatuta geratu ohi diren kontu zaharrak. Bide horretatik ere asko elikatzen da KARKARAKO Oroimenaren Kutxa, eta horrela segitu nahi luke aurrerantzean ere. Kontatzeko-rik zerbait lukeenari gustura asko entzungo lioke iraganaren kontalari honek. ■ **Iñaki Iturain**

Mentos' paketeena bezalaxe

Badira legeak eta badira gizalegeak. Oso desberdinak biak. Legeak aukera bakarizatzen eta haiek sortutako bideari jarraitzeko ezartzen dira. Gizalegeak, berriz, ezartzen ez diren eta norberak sortzen dituen aukera ugariak dira. Legeak ekin-tza oker ugari onartzen ditu. Adibidez: Mentos goxoki paketeak eta Coca-Cola latak umeen eskura ipintzea. Pentsatzen jarri bazarete, Mentos paketeena aipatutakoan ez al zaizue alderdi politikorik burura etorri. Zergatik ote?

Jarraitu egingo dut. Gauza oker gehia-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

go onartzen ditu legeak. Haziak eta landareak legez kanpokotzat jotzen ditu. Alderdi politikorik ez datorkizue burura, ezta?

Zaborrarekin sudurraren puntan jarritako guztia egiteko aukera ematen digu legeak. Alderdi politikoren bat oraingoan bai, ezta?

Bada, niretzat, gizalege egokiak hauxe dio: onartezina izan behar zaigu zaborra alderdi politikoen interesetan kokatzea. Begien aurrean egunero dugun arazo larri hori guztiok sortzen dugunez eta guztiok irensten dugunez –kaltetuenak gutxien sortzen duten herrialde pobreenak dira, nire ustez–, guztion arazoa da. Beraz, eztabaida izan dadila zaborra eta zaborren kudeaketa eta arazo hori nola konpondu. ■ **Iboni**

Mila esker, guztioi

Dakizuen bezala, otsailaren 25ean Oriako 18. jaitsiera eta Arraun Eguna antolatutako genituen. Ez zen jaitsiera antolatzen zen lehen urtea izan, baina aurten, lehenengo aldiz, egun osoko egitaraua antolatzea pentsatu genuen, oriotarrek eta gure herrira gerturatzen ziren guztiok arraunaren inguruko festaz gozatzeko

aukera izan zezaten.

Eguraldia lagun genuela, ekintza guztiak oso ondo ateraz zirela eta jende ugari zoriondu gintuen antolakuntzagatik. Beraz, azken balantzea egiterakoan, oso gustura geratu gara. Hala ere, festaren arrakastagatik baino gehiago, herritar ugari laguntzeko erakutsi digun gogoarengatik sentitu gara harro. Ezin dugu lagundu diguten guztien zerrenda egin, norbait ahazteko arriskua izango baike-nuke. Baina zuek badakizue zeintzuk zareten eta zein garrantzitsua izan den zuen laguntza, denen artean ez balitz, ez baitzen posible izango eguna hain ongi irtetea. Horregatik, mila esker guztioi.

Bestalde, *Hemengatoztik* bazkide kanpainan jendearen erantzuna oso ona izaten ari da. Abenduan jarri genuen martxan eta, harrezkero, 230 bazkide berri ditugu Orio Arraunketa Elkartean –1.640 inguru gara, orain–. Astero norbait gerturatzen da guregana bazkide egiteko eta guk, nola ez, besoak zabalik hartzen ditugu guztiak, gure erronka 2.000 bazkide izatera iristea baita.

Beraz, berriz ere, mila esker guztioi eta oraingoz bazkide egin ez bazarete, animatu! ■ **Orio Arraunketa Elkarteko zuzendaritza taldea**

Atez ateko bilketa

Irakurria dut, Orion, ekainetik aurrera, atez ateko zabor bilketa ezarriko dela. Ez dakit erabakia hartua dagoen ala ez, baina uste dut eztabaida bat merezi duela. Orioko Udaleko gobernua herriaren zerbitzura egon behar luke, bere osaketa kontuan edukita –Bildu eta Orain–. Niri Usurbilen eta Hernanin egiten duten modua ez zait batere gustatzen. Zergatik ez diogu aukera ematen Itsasondan ezarri den sistemari? Hau da, edukiontzia kalean birzikla daitekena biltzeko, eta atez ate gainontzekoa –ontzi grisa–. Nire ustez, sistema hori garbiagoa, errazagoa eta merkeagoa da eta helburu berak betetzen ditu. Hala eta guztiz, Itsasondan ekainean hasi ziren eta datuak hor egongo dira besteekin konparatzeko. ■ **Jose Inazio Agirresarobe**

Piratak

Aurtengo inauteri festan, herrian egin zen desfilean, pirata ontzi dotorea ateratu genuen eta helduen karroza onenaren saria irabazi. KARKARA bidez adierazi nahi dugu aho batez erabaki dugula lehenengo sari hori Orio Arraunketa Elkarteari ematea. Mila esker denei eta hurrengo urtera arte. ■ **Piraten karroza**

9.226.049 euroko aurrekontua onartu du Orioko Udalak

Inbertsio nagusiak honako hauetara bideratuko dituzte: kanpina berritzera, Motondoko ingurune naturala berreskuratzea, zerbitzu orokorretara, hilerriko egitasmora eta energia aurrezteko planera

2012ko udal aurrekontuak onartu zirenean azken batzarrean udalbatzak, Bil-duko bost zinegotzien eta Oraineko bien aldeko botoekin, eta EAJko bost zinegotziren –Lurdes Salsamendi falta zen– aurkakoekin. 9.226.049 eurokoa izango da aurtengo aurrekontua; iaz baino %12 gutxiago.

Beñat Solaberrieta alkatearen esanetan, *krisi garaietara egokitutako aurrekontua onartu dugu, eta garai hauetan balibideak erantzukizunez kudeatu behar dira. Beraz, Orioko Udalak dituen balibideak optimizatu eta kalitatezko zerbitzuak bermatu behar ditu.*

Inbertsioak

Aurrekontua %12 gutxitzeak inbertsioetan izango du eragina. Iaz 4.654.480 euroko partida bideratu zuen Udalak azpiegitura-lanetarako; 2012an, berriz, 2.999.826 euro izango dira eta, asko gutxitu den arren, hainbat inbertsio estrategiko ez dituzte baztertu. Horietako bat udal kanpina da: azpiegiturak berrituko dituzte kalitatezko kanpina sortzeko, eta 2012an bungalowak jartzeko egokitu dute. Lan horietarako 245.000 euro bideratuko dituzte.

Motondoko ingurune naturala berreskuratzea lanak ere egingo dituzte eta Eusko Jaurlaritzatik jasoko dituzten 200.000 euro inguruko diru-laguntzari esker gauzatuko dira lanak.

Zerbitzu orokorretarako aurrekontua %20 igoko da, herria hazi denez, lorezaintza zein kale-garbigeta zerbitzuak egokitu egin behar baitira.

Hilerriari dagokionez, eragileekin batzartu eta hilerriko beharrak aztertu ondoren, aurreko egitasmoa bertan behera utzi dute eta herriak dituen beharrei erantzungo diola bermatuz, neurriria egindako beste bat bideratuko dute. Horrela, 1.100.000 euroko diru partida zena 410.000 eurotan geldituko da.

Azkenik, LED motako bonbillak jarriko dituzte, argiteria publikoaren gastua murrizteko. Horretarako, 50.000 euro erabiliko ditu Udalak.

Bestalde, nabarmendu dute herriko elkartei bideratutako diru-laguntzek gora egingo dutela; batez ere, kirol elkarteentzako laguntzek. Kirol elkarteek 130.000



Aurrekontuetako zati bat 2012an kanpinean bungalowak jartzeko bideratuko dute. KARKARA

euro jasoko dituzte, iaz baino 25.000 euro gehiago. Kultur elkarteek, berriz, iazko laguntza bera: 35.000 euro.

Etxebizitzetara dagokionez, igogailuak jartzeko –10.000 euro–, Goiko kalean kableak jartzeko –10.000 euro– diru-laguntzak izango dira, eta etxebizitza hutsak alokatzeko plan bat diseinatuko dute eta beste 10.000 euro horretarako izango da.

Aurrekontua %12 gutxitzeak inbertsioetan izango du eragina. Iaz azpiegiturarako 4.654.480 euro bideratu ziren eta aurtun 2.999.826

Hezkuntzan ere igoera izan da –77.000 eurotik 173.040 eurora–. Zarguetan sei gela berri eraikiko dira, eta gastu horiek Udalak –%40– eta Jaurlaritzak –%60– finantzatuko dituzte.

Azkenik, konponketak egingo dituzte futbol zelai azpiko garajeetan, frontoian, kosta tailerrean, hondartzako etxebizitza babestuetan eta kiroldegian.

EAJ ez dago ados

EAJ alderdiak udal aurrekontuaren aurka bozkatzeko arrazoiak honako hau dela adierazi zuen Jon Redondok: *Kezkatzen gaituena da aurrekontuaren hasierako zirriborrotik, gastu eta sarrera arruntetan egon den igoera. Aurrekontu hauekin aurreko urteetako soberakina gastatuko da. Agintaldia hasi zenean, kaxan 12.000.000 euro zeuden, eta aurrekontu hauekin 7.000.000 eurora jaitsiko da, gure ustez. Beraz, dugun gestioa ez da egokia eta, batez ere, krisi garaian inbertsioak sustatu beharko lirakeke aurrekontuetan. %35eko inbertsio jaitsiera dago 2011koekin alderatuta eta gastuetan, al-diz, %7ko igoera. Hain zuzen ere, egin behar denaren alderantzizkoa.*

Alkateak Redondoren esanei erantzuteko esan zuen: *%35eko inbertsio jaitsiera egin dugu, gure ustez dauzkagun azpiegiturari eusteko, jarraipena egiteko eta daudenak ondo jartzeko eta ondo kudeatu ahalizateko, ezer berri handirik ez dugula egin behar, baizik eta daukaguna zaindu eta optimizatu, eta hori izan da aurrekontuaren ildo nagusietako bat.*

Bigarren eskuko azoka eta kupoi sistema sustatuko ditu Udalak

Iazkoari jarraituz, bigarren eskuko azoka izango dugu hilean behin Orion. Saltzeko gauzak dituzten oriotar guztiek izango dute mahaia jartzeko aukera.



Kanpaina berrian Arkupekoetz gain, herriko beste dendariak ere hartuko dute parte. KARKARA

Berrerabiltzea, birziklatzea eta hondakinak gutxitzea bultzatu nahi ditu Orioko Udalak bigarren eskuko azoken bidez. Horretarako, hilean behin herritar guztiek izango dute mahaia, han salgaiak jartzeko.

Bigarren eskuko gauzak saltzeko erabiltzen badira ere, trukerako ere balioko du azokak; *izan ere, jendeak etxean behar ez dituen gauzak bota beharrean, berriz erabiltzea da helburua*, esan du Miriam Uranga merkataritzako zinegotziak.

Hileko hirugarren larunbatetan egingo dira azokak. Eguraldi onarekin, ikastola aurreko plazan izango dira, goizeko 10:00etan hasita; txarrarekin, berriz, frontoian eta 11:00etatik aurrera.

Herritar guztiek izango dute mahaia jartzeko aukera, eta horretarako materiala eskatzeko. Materiala erabili ahal izateko, azokaren aurreko ostegunean udaletxean eskaera egin beharko da – telefonoz deituta nahikoa izango da –. Larunbatetan, nork bere postua jarri eta kendu beharko du. Hurrengo azoka eguna martxoaren 17an izango da, eta mahaia 15erako eskatu beharko dira.

Merkataritzako kupoiak

Herriko merkatarien, ostalarien eta profesionalen jarduera sustatzeko, deskontu-kupoiaren sistema abian jarriko du Orioko Udalak. Hala, herriko saltzaile guztiengana –Arkupekoak izan ala ez– joko dute eskaintza egitera. Kupoiak KARKARAREN bidez banatuko dira herritarren artean, eta garaian garaiko eskaintzak egingo dituzte dendariak, jendeak nahi duenez baliatzeko zerbitzuak merkeago lortzeko.

LABUR

Kultura

Antzerki taldea osatzeko nahia

Lehen ere izan zen antzerki talde bat Orion eta, orain, berriz ere martxan jartzeko asmotan dabil herritar talde bat. Antolaketa-lanetan dabiltzanak animatu egin nahi dituzte antzerkizaleak edota probatu nahi dutenak, izena eman dezaten. Horretarako, Kultur Etxera jo eta bertan harreraren izena ematearekin nahikoa izango da. Momentuz, ikasleak berak izango dira beren buruaren irakasle.

Lanak

Tren geltokiko bidegurutzeara

Aurrera doaz N-634 errepidean egiten ari diren lanak eta, dagoeneko, Santiora, Motondora, Oriora eta Zarautz alderako bidegurutzeara ari da itxura hartzen. Biribilgune handi bat joango da Orioko zubia-
ren tren geltokiko aldean, baina momentuz erdia ireki dute bakarrik. Zudugaraitik behera datorren errepide zati berria ere zabaldu dute eta orain oinezkoentzat egokitzea besterik ez da falta. Biribilgunean, Santio aldera ere zuzenean pasa daiteke orain. Lanak maizta erdira ko bukatzea espero dute.

Euskara

2.200 Lodosako ikastolarako

Orioko Ikastolan 1.100 euro bildu dituzte, –ikasleek, 637 euro; irakasleek, 463 euro–, Lodosako ikastolarentzat. Ikastolen Elkartek ekimen horri bultzada emateko Bildu koalizioarekin konpromisoa lortu zuten: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta koalizioaren agindupean dauden udalek Ikastoletan lortutako bezain beste jartzea. Orioko Udalak, horri eutsiz, Herri Ikastolan bildutako adina diru, 1.100 euro, jarri ditu. Denera, beraz, 2.200 euro bideratu dira Lodosako-Sartagudako Ibaialde Ikastolarentzat.

Karkarak kanpaina abiatu du, laguntzaile berriak lortzeko

Egoera ekonomiko txarrari aurre egiteko, finantzazio bide berriak bilatzeko premia du KARKARAK. Bi udalekin hitzarmenak lotu nahi ditu, publizitate-bide osagarriak landu eta laguntzaile gehiago lortu.

Aldizkariaren zenbaki honetan bertan abiatu du KARKARAK laguntzaileak lortzeko kanpaina. *Karkarak behar zaitu* leloa erabiliko du, hemen ondoan ikusten den irudiarekin lagunduta.

Kanpainarako irudia Julian Toquero diseinatzaile lasartearrak egin du, bere ohiko estilo naif eta sinpatikoan.

Diru-kontuak berdindu ezinik

KARKARA Taldearen urteko aurrekontua 78.843 eurokoa izan zen iaz. Horrekin ordaindu ziren aldizkariaren urteko 19 zenbakien inprentako gastuak -3.100 ale zenbakiko-, webgunea, banaketa gastuak eta bi langileren soldatak, besteak beste.

Diru-sarrera nagusiak hiru ditu aldizkariak: administrazioaren diru-laguntza -bi udalak, Jaurlaritza eta Aldundia-, publizitatea eta bi herrietako laguntzaileek ematen dutena.

Orioko Udalak 13.400 euro eman zituzten 2011n eta Aiakoak, berriz, 6.354. Jaurlaritzaren eskutik 11.378 euro jaso zituen eta Aldundiarenetik, berriz, 6.621. Laguntza publikoetan, hortaz, 37.753 euro jaso zituen iaz KARKARAK; aurrekontu osoaren erdia baino gutxiago, hortaz.

Publizitateari dagozkion diru-sarreak 30.600 eurokoak izan ziren 2011n.

Azkenik, laguntzaileen bidez -aldizkaria kaleratzeko borondatezko diru-laguntza ematen dutenak dira laguntzaileak-, 10.000 euro inguru jasotzen ditu KARKARAK. Laguntzaile bakoitzak 35 euro jartzzen ditu urtero eta ia 300 laguntzaile ditu elkarrekin.

Krisia dela-eta, aurtengo aurreikuspenak ez dira onak KARKARARENTZAT ere: nahiz udaletatik datozkion diruak gehituko diren, Jaurlaritzarenak eta Aldundiarenak jaitzi egingo dira eta, nabarmena denez, publizitatearenak ere bai.

Gauzak horrela, bide bat geratzen zaio KARKARARI, kontuak berdindu ahal izateko eta estuasunetik libratzeko: laguntzaile berriak sortzea, ahalik eta gehien.

Bide horri helduko dio KARKARAK datozen hilabeteotan eta horretarako abiatu du *Karkarak behar zaitu* kanpaina. Aldizkaria egiten dutenen helburua da 500 laguntzaile izatera iristea.



Atzeko azalekoaz gain, irudi hauek erabiliko ditu Karkarak egingo duen kanpainan. J. TOQUERO

Garai txarrak euskarazko prentsarako

ANAG. DE TXABARRI
KARKARAREN ZUZENDARIA

KARKARAREN kontu honekin hasi ginen, orain dela hogeitik gora urte, garbi geneukan oso inportantea zela gertuko euskarazko prentsa, normalizazio-bidean aurrera egingo bagenuen. Orduan bezain egokia eta premiazkoa da gaur egun ere eta, itxura denez, orduan bezain zaila ere bai.

Ez gara espantuka hasiko; garai txarrak ezagutu ditugu lehen ere eta, inbento honek segituko badu, etorriko zaizkio atzetik beste batzuk. Herritarren bultzadaz asmatu genuen aurreko krisi garaietatik ateratzen eta asmatuko dugu oraingoan ere -asmatuko ahal dugu!- bidezidorrean aurrera.

Garbi dago, nolahi ere, bide hori egiteko, ezinbestekoa izango zaigula zuen laguntza. KARKARAK Aian eta Orion garrantzia baduela uste duzuen guztiona. Euskaraz bizitzeko aukera garbia egin duzuen guztiona.

Laguntza eskean gatoz, bai, eta ez da gustagarri horrela ibili behar izatea; baina derrigorra iruditu zaigu. Orain dela hogeita hiru urte sortutako proiektua errealitate sendo bihurtu den honetan, segida behar duela uste dugulako.

Guk hauxe daukagu eskaintzeko: gure lana eta guztiok ezagutzen duzuen produktua. Benetan iruditzen bazaizue merezi duela hasitako lanarekin segitzea, oraintxe duzue aukera, KARKARAK behar zaituzte-eta.

300 laguntzaile ditugu gaur egun eta ez naiz gauza hitzetan egoki adierazteko zenbateko zorra dugun haiekin. Gure oinarria eta arnasa izan zarete; baina, hara! Gehiago nahi ditugu!

500 laguntzaile izatera iritsiko gara, ezta?



Hondarribian Oriok irabazi zuen hilaren hasieran; hondarribiarrek berriz Orion. KARKARA

Hondarribia garaile Oriako 18. jaitsieran eta Sagardoaren ginkanan

Orio bosgarren izan zen estropadan, 18 segundora. Antolatzaileak pozik agertu dira Arraun Egunak izan zuen harrerarekin, eta eskerrak eman dizkiete lagundu dutenei

Goizeko 11:00etarako jendea ikastola aurreko plazara gerturatzeko hasi zen. Eusko Label Sagardoaren ginkana ikusmina piztu zuen eta, ordu laurden atzeratu bazen ere, jende mordoak bildu zen hura ikusteko.

Hainbat proba egin eta gero –ergometroan neskak eta mutilak, lokotx biltzen patriiak, eta arraunaren inguruko galderakerantzuten – Hondarribia izan zen irabazle Orioren aurretik. Atzetik San Pedro, Zarautz eta Ondarroa sailkatu ziren.

Goizean bertan, ekitaldia hasi eta bazkal ordura arte, jende asko gerturatu zen sagardoa probatzera eta txorizo pintxoak jatera. Bazkide egiteko mahaira hurbildu zenik ere izan zen. Ginkana bukatu zenean, Egunsenti otxoteak kantu-jirari eman zion hasiera.

Bazkalostean etorri zen jende gehien Oriora, erri ingurura. Jende asko izan zen traineruen lehia ikusten, eta eguraldiak ere lagundu zuen ez baitzuen euririk egin egun guztian.

Jaitsiera eta festa

Hondarribia izan zen jaitsierako irabazlea eta 20 minutu eta 36 segundotan geratu zuen kronometroa, Mapil eta Salatxo arteko bidea egiteko. Bigarren San Juan izan zen, 12 segundora; hirugarren eta laugarren, ehuneneko diferentziarekin, Urdaibai eta San Pedro 15 segundora; eta bosgarren izan zen Orio 18 segundora.

Sari banaketa plazako oholtzaren gainean egin zen, eta horren atzetik sokatarako desafioa izan zen Aginagaren eta Orioren artean. Oriotarrek irabazi zuten, tirada guztiak irabazita. Horrez gain, estropada bukatu eta iluntzera arte, berdel parrillan erreta banatu zuen arraun elkartek eta jende asko gerturatu zen arrainaren usain goxora, berdel jatera.

Afaritan, 150 inguru lagun bildu ziren frontoian eta, festa bukatzeko, Xabi Arostegi DJaren emanaldia izan zen plazan. Antolatzaileak oso gustura geratu ziren emaitzarekin, eta esker ona agertu dute lagundu zuten guztientzat.



LABUR

Pala

Txapelketa abian

Aurreikusten zen moduan, txapelketa orekatu egin da lehen jardunaldietan. Iaz baino maila hobea dagoela esan du Eneko Galarraga pilota elkarteko kideak: *Lehen lau postuetarako borroka estu jongo da. Orain arte gutxi ibilitakoak badiara tartean, eta maila ona ematen ari dira hasieratik. Txapelketa aurrera doan neurrian, are ikusgarriagoak izango dira partidak.*

Futbola

Neskek bi garaipen segidan

5 partida jokatu eta 3 irabazi dituzte Josu Solaberrieta eta Urko Aldalurren neskek. Azken bi partidak gol asko sartuta irabazi dituzte, gainera. Etxeko azken partidari 4-0 irabazi zuten Amara Berriren aurka, nahiz eta azken minutuak jokalaririk gutxiagorekin jokatu zituzten. Azkena, Azkoitia irabazi zuten, Anaitasunaren aurka, 2-6. Lehen itzulia bukatzeko azken partida asteburu honetan jokatu dute, Orion, Touringen aurka. Irabazten badute, gauzak ongi jarriko zaizkie, galdutako bi partidak gol baka-reko aldearekin galdu baitituzte.

Oiana Blanco Londresko Olinpiar Jokoetan izango da

Varsovian jokatu zuen Munduko Kopako azken proba, eta Olinpiar Jokoetarako txartela eskuratu zuen han. Orain multzo-buru izatea lortu nahi du Europako Txapelketan.

Oiana Blanco judokak ibilbide gogorra izan du zuen ametsetako bat lortzeko. 48 kiloz azpiko kategorian lehiatzen da borrokalari, eta munduko punta batetik bestera ibili behar izaten du hainbat txapelketa jokatzeko.

Azkeneko bi urteetan emaitza oso onak lortu ditu Blancok, Munduko Kopako proba bat baino gehiago irabazita. 2009an Rotterdameko Munduko Txapelketan zilarra eskuratu zuen eta 2010eko apirillean brontzea Vienako Europako Txapelketan. Orduz geroztik, 2011ko ekainean, Madrilgo Munduko Kopako proban urrea lortu arte, 5. izan da proba gehienetan 28 urteko Orioko judoka.

2011 oparoa

Madril izan zen Oianaren mugarrira. Han irabazi eta astebetara, 5. izan zen

Lisboan, eta hurrengo astean emaitza berbera lortu zuen Rio de Janeiron.

Uztailaren lehen egunean Miamiako Munduko Kopako proban irabazte izan zen eta, irailaren bukaeran, Almatin –Kazakhstanen– erreskadan irabazita, bigarren errearekin itzuli zen etxera. Gerora, beste bi bosgarren postu eta bigarren bat lortu zituen 2011n.

Urte berriarekin batera, Almatin eta Dusseldorf –Alemanian– izan zituen lehen bi probak, eta bosgarren izan zen. Baina otsailaren 25ean, Varsovian –Polonian–, beste urrezko domina irabazi zuen bertako Munduko Kopako proban. Finala irabazi eta Olinpiar Jokoetarako txartela ziurtatu zuen. Top 10ean dago orain Oiana, eta apirilaren 26tik 28ra, Txeliabinsken, Errusian, Europako Txapelketan irabaztea lortzen badu, multzo-buru izango da Londresen.



Blanco Varsoviako podiumean. S. MICHALOWSKI

Dena prest Orioko 2. Mendi Lasterketarako

Ibilbide desberdina izango du aurten probak eta izena emateko epea irekita dago. Gehienez ere 350 pertsonentzako izango da dortsala eta dagoeneko 236 korrikalarik eman dute izena sarean.



Iaz lanbroa izan zuten Kukuarri inguruan korrikalariak. KARKARA

Ibilbide berria diseinatu dute apirilaren lehen izango den Orioko 2. Mendi Lasterketarako. Iaz 250 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte eta, aurten, iazkoa ikusita, ibilbidea berritzea pentsatu dute antolatzaileek

Guztira, 20 kilometro eta 1.000 metroko gora egingo du lasterketak. Irteera Orioko Herri Ikastolaren paretik izango da, eta honako ibilbidea egin beharko da: ikastola, Goiko Kaletik San Martinera, Txanka, Erretzabal gaina, A-8 azpiko igarobidea, Etxaiz, Orioko Benta, Kukuarri, Puntarriko bidegurutzea, Lusarbe, Lusarbeko zalditegia, GR-121, Itxaspe, Hondartza, Kanpina, San Juan, Puntarriko bidegurutzea, Andu, Txankako gaina, kirol-portuko biribilgunea eta ikastola.

Ibilbidea txukuntzen jardun da boluntario talde bat eta, besteak beste, San Juango ermitatik Puntarriko bidegurutzerako bidea zabaldu dute, hainbeste urtetan itxita egon eta gero.

Antolatzaileen eskaera

Proba prestatzen ibiliko diren korrikalariari, Etxaiz baserriaren gaineko lurretatik ez ibiltzeko eskatu du antolakuntzak, eta tarte hori errepidez egiteko.



Don Manuel Aizpurua, lehen ilaran eskuinetik bigarrena, Zumaian 1937an herria utzi behar izan zutenei egindako omenaldian. ZUMAIKO UDALA

“Gogoan izan behar da bizitakoa eta garbi esan horrela izan zela”

Manuel Aizpurua

Apaiza

1937ko otsailan, Espainiako Gerra Zibilaren garaian, herritik kanporatu zituzten 256 herritarrei omenaldia egin zitzaizen otsailaren 24an Zumaian. Horietako bat don Manuel Aizpurua zen, sei urteko mutikoa zen orduan eta gogora ekarri digu gaur.

PAT COWIE

Sei urte baino ez bazituen ere, oso gogoan ditu don Manuelek garai hartako sufrimendua eta gogorkeria, eta garbi du gaurkook gogoan izan behar ditugula.

Nola etorri zen kanporatzeko abisua?

Hiru eguneko epea eman ziguten, eta arropa-eta prestatzen, eta negar egiten pasa genituen. Gurea defendatzera frontera joateko gauza ez zirenak aukeratu zituzten: umeak eta edadekoak eta gure aita, zaharra zenez, gurekin joan zen: gurasoak eta 5 anai-arreba. Beste

hirurak alde eginda zeuden, jakina. *Schindlerren Zerrenda* filmean bezala sartu gintuzten autobusetan eta Bizkaira eraman, bahituta, familiak zigortzeko, frontean genituenak presionatzeko.

Nora eraman zintuztetan?

Hango baserrietan banatu zuten jendea, pentsamendu bereko familietan. Larrea auzoan egon ginen gu, eta handik etengabeko bonbardaketak ikusten eta entzuten genituen: Urkiola, Durango, Gernika... Bizkaia momentu txarrenean zegoen, eta Bizkaia guztian ibili ginen, ihesi, errefuxiatu guztiak, eta hartzen

gintuzten herrietan gordetzen gintuzten ahal zuten moduan.

Zer moduz hartuak izan zineten?

Aita baserritarra zen eta baserrietan ez zegoen behar adina jende, asko mugara joanak ziren-eta. Bilbon janaria falta zen: arroza Valentziatik ekartzen zuten, garbantzuak Mexikotik, baina beste guztia falta zen eta nork landu ez zegoen. Aitak koadrila antolatzen zuen, mutil koxkorrak lanean jarrita. Eguna ematen genuen arbia biltzen, kamioia kargatzen... Oso gogorra izan zen, baina sentimendu handiko gogorapenak ditut.

Beti elkarrekin ibili zineten?

Gernikako bonbardaketa ondoren, Bilbo bonbardatuko zutela ikusita, umeak atzerrira bidali nahi zituzten, baina amak ezetz esan zuen: *Hil behar badugu, elkarrekin hilko gara*. Ez gintuen bidali.

Eta elkarrekin bueltatu zineten etxera?

Abuztuan izan zen Laredoko errendizioa. Hor bukatu zen gerra. Hangeunden, etxera bueltatzeko baimena noiz emango zain, eta orduan hil zen gure arreba. Mutiko batek bonba bat jo zuen eta ondoan zegoen 8 urteko arreba hil zitzaidan.

Errazegi ahazten al zaizkigu halakoak?

Tristea da jendeak ahaztu nahi izatea. Orain hainbeste aipatzen den memoria historikoa hau da, bizi izan duguna. Gaurkoek ez dute kulparik, baina gogoan izan behar da eta garbi esan hori horrela izan zela. Horregatik, Zumaian egindakoa inportantea da.

Kirolak eta gastronomiak bat egingo dute igandean *Bizi Iturri* jaian

Aiako lehen Mendi Lasterketa eta babarrun jana antolatu dituzte aurten estreinako aldiz Udalak, Kirol Elkarteak eta Aiako hainbat ostalarik martxoaren 11rako

Bizi Iturri izenpean egun berezia antolatu dute iganderako, martxoaren 11rako, Aiako Udalak, Kirol Elkarteak eta herriko hainbat jatetxek. Egund horretan bi ekitaldi nagusi izango dira Aian: mendi lasterketa eta babarrun jana, biak estreinako aldiz.

Hori dena prestatzeko, Aiako taldeak, herritarrak eta udal ordezkariak ere elkartu dira. *Jai hau hainbat arlotako jendearen elkarlaneko lehenengotariko fruitua da. Pintxo txikiteoarekin hasi ginen eta jai honekin eman nahi diogu segida*, adierazi du Igor Iturain alkateak. Gaineratu du *egoera ekonomikok gaur egungo gizartearengan eragiten dituen ondorioak direla eta, gure herriko jardueratik erabaki ausartak hartzerak behartzen dituela*.

Beraz, Udalak, jai bultzatzeaz gain, herriko jardueretan ari direnei eguneroko zailtasunak gainditzeko bideak bilatzeko laguntza ere emango diela adierazi du alkateak.

Goizean korrika

Korrikalariek emango dituzte *Bizi Iturri* jaiko lehen pausoak. Izan ere, 11:30ean abiatuko da Aiako I. Mendi Lasterketa plazatik. Lasterkariak Aia-Pagoeta-Ernio Txiki-Zalekutz-Aia ibilbidea egin beharko dute; 8.200 metro luze eta 557 metroko desnibela. Asteazkenean, erredakzioa ixteko unean 87 lagunek emana zuten izena; hala ere, nahi izanez gero irteera tokian ere egongo da izena emateko aukera, 12 euro ordainduta, baldin eta 150 laguneko muga gainditu ez bada. Ibilbidea distantzia laburrekoa da, eta ez dute jendea pilotzerik nahi.

Bazkaltzeko babarrunak

Lasterka aritu ondoren, indarrak berreskuratu nahi dituztenek edo, besterik gabe, Aiara bazkaritara gerturatzen direnek aukera berezia izango dute eguerdian: babarrun jana. *Ingurutik beti etorri izan dira Aiara babarrunak jatera eta ohitura indartu nahi dugu*, dio Iturainek.

Arruti, Jauregi, Kanua, Errota, Altxerri, Satxota, Izeta eta Izarra jatetxeetan izango da babarrun janerako aukera, eta jatetxe bakoitzean 30 lagunek jan ahal izango dute menua: babarrunak –sakramentu guztiekin–, etxeko postrea, kafea eta edaria. Kaskoko jatetxeetarako ez da txartelik geratzen, baina gainontzekoetan bazen tokia KARKARA inprentara bidali zenean.

Herriko tabernariak diote beren egoera oso zaila dela, baina horregatik ez dutela zertan jatetxe edo tabernetan sartu eta geldirik egon. *Modu berriak aztertze eta probatzeko, eta orain artekoak aldatu eta berritzeko garaia da*.

Herriko produktuak

Festa honen bitartez, *herrian ditugun produktuei garrantzia eman eta nekazariari ere beren produktuak plazaratzeko bide berriak irekitzen lagundu nahi diegu*, esan du alkateak. Izan ere, Aiako babarrunak izango dira plateretan. Jatetxeetako ordezkariak ere bat datozen herriko produktuekin konpromisoa hartu behar dela esatean: *gure produktuen balio eta ezaugarriak gure jarduerentzako ere balio izan daitezke*.



Igor Iturain, alkatea, ostalarien ordezkariekin Zarauzko aurkezpenean. ANE OLAIZOLA

Urtebetetze bakarrak

Bisnestoa edo deitzen zaiona degu, bi mila eta hamabiko urte hau. Alegia, otsailak hogeita bederatzigun egun. Eta nolako egunak eman dizkigu gainera... Hotzak, petralak eta aspergariak. Batez ere, urteetan aurrera goazentzat. Baina joan da eta, laga diezaiogun pakean.

Bere hogeitabederatzigarren egunean jaio diranak ere gerora izango dute zer esana edo, zer aitzakia jarri otsail txikiari. Lau urtez behin izango dute urtebetetzea. Baldin eta zelebratu zale badira, adar jotze ederra, batez ere bezperan eta biharamonean jaio direnak urtero ospatzen ikusita.

Ume garaian behintzat izango du eragina, zalantzarik gabe. Orain, izan ere,

handikiro ospatzen baitituzte umeen urtebetetzeak.

Zer aldakuntza dagoen horretan, gure txiki garaietatik. Nik, behintzat, mutiko handia egin era gerora arte ez nekien urtebetetze eguna noiz izaten nuen eta...

- Zenbat urte dituk, txikito? - bost edo, zazpi edo, dena delakoa eta aurrera. Ospakizuna, erregaliak, baita zera ere! Munduan zenik ere horrelakorik...

Baina, jaiotzako datari bakarrak begiratzen diogula uste dut. Berdina dauka gu heriotz egunarekin ere! Lau urtez behin jarriko zaigu parean. Beharbada, hori gutxtitan ospatzeko hobe da. Horixe egon daiteke dagoen alde.

Garai bateko jakintsuei zer gertatu ote zitzaien, eguzkiaren martxa eta urtemuga edo, bere jaitsi-igoak hobeto ez neur-

tzeko. Ez ote zegoen modurik, egun hori banatzeko urtean zehar? Ziur orduan ere, matematikan huts egiten zutela, orain bezalaxe.

Eta aipatu ditugun arazotxo horiek laga zizkiguten gizartearen egutegirako. Bestela ere, ez zegok ba batere arazorik, nahiz eta ordenagailuz eta mobilez hornituta egon.

Jarri gaitzen bada udaberriari begira, eta kukuaren zain. Lazkao Txikik zioena gogoratu: *Kalendario gabe badaki noiz etorri eta noiz joan*. Uste dut txorien senak eta animalienak gizarteko matematikak bezain ondo badabiltzala. Pixka bat jarraitu dezaiegun, badaezpada ere.



Txokoak eta jendea 1984. urtea

Orain dela gutxi alondegiaren aurrealdea erakutsi genizuen, eta hemen duzue atzealdea. Esquinean dago eskolako sarrera (zenbat kontu txiki koxka horretan eserita!) eta behetik gora doan eskailera Guardia Zibilaren koarteleko bidea zen; haiek joan zirenean, Imanol Mitxelena beterinarioaren etxea bihurtu zena.



10. Etxeberri, izenetik izana

Gaur egun txalet itxura duen arren, herriko baserririk zaharrenetarikoa omen da, Orioko hiribilduan eraikia. Alde Zaharra haztean eraikinek betetzen zuten azalera gero eta zabalagoa zen eta orduko baserriak horregatik daude gaur egun Orioko erdigunetik hain gertu.

Etxeberri baserriaren lehen aipamena, 1510-1511 urteko dokumentu batean dago *Simona de Echeberria* izenean. Ga-

rai bateko abizenak etxearekin edo baserriarekin lotuta egoten ziren, pertsonaren jatorriaren adierazle gisa; beraz, dakitenek uste dute abizenak, zeharka bada ere, baserriaren izana adierazten zuela.

Gerora, 1564ko dokumentuan *Hecheberria* izenak baserriari egiten dio erreferentzia. Ez da baserriak agirieta hartzen duen grafia bakarra, *Echeuerria* ere idatzi baitute. Gainera, Hirugarren Guda Karlistan Alfonso XII.aren aldeko gudarosteak Orion egindako kalteak aipatzean, Etxeberriko bi bizitza aipatzen dira. Gaur egun, Orion, Etxeberri baserria esanda ezagutzen dena 1875ean egindako *Echeberri-aundia* eta *Etxeberri-chiquia*-ren batura da.

Itxurari erreparatuz gero, garai bateko arrastoak antzeman daitezke; behin baino gehiagotan erre arren, harlangaitzezko paretek tente iraun dute. Ezkerrean, atzeko aldean erdi-puntuko arkua duen sarrera bat ere badago. Zati hori belarra gordetzeko erabiltzen zuten; gaur egun baserriko lanak utzita izan arren, esnetarako behiak izan zituzten eta esnea Orion banatzen zuten.

Eskuineko aldean gaur egungo etxebizitza dago. Garai batean, haren azpialdean, dolare bat zegoen. 25 urte badira sagastiak utzi eta dolarea gelditu zutela, baina ardatza eta hainbat pieza gordeta dituzte.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

• Aholkularitza zibila
 • Aholkularitza fiskala
 • Aholkularitza enpresa
 • Lan mugatuaren aholkularitza
 • Enpresa jabetza
 • Aholkularitza enpresa enpresa

1994. urtean sortua
Tel. 943 894 024

Gertutako lekuak:
 48920 PAMPLONA
 48940 LEZAMA

b

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

143 81 05 37 / 143 83 27 47

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



Martxoaren 3an, SOS Haur Lapurtuak elkarteak deituta, Donostiako Artzain Onaren eliza aurrean egin zuten agerraldia haur lapurtuak aurkeztuz.

Non ote dira jaioberritan lapurtutako umeak?




lapurtuen auziko kaltetuek. Pankartaren atzean Orio eta Aiako ordezkariak: Dorita Ferrin, Maite Bastos, Lurdes Iburguren, Emerenciana Molinero eta Marian Zubia.

Batean eta bestean zeresan handia ematen ari da **haur lapurtuen auzia**. Frankismoan eta ondorengo hamarkadetan hainbat haur jaioberri lapurtu zituzten ospitaletan eta asko dira azpijoko horren ondorioak jasan dituzten senideak. Bakoitza bere kasua argitu asmoz, besteak beste agiri bila ari da.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI

ARGAZKIAK: KARKARA ETA

IÑAKI BASTOS



ospitaletan bahituak, beste familieisalduek, berezko senideek galduak: lapurtutako umeak. Jaioberri haiek horrela baitaiatu zituzten kasua ikertzen hasi zirenek. Auzi honetan gero eta biktima gehiago dago. SOS Haur Lapurtuak elkartearen arabera, 1.000ra gerturatzen ari da Gipuzkoan dokumentu bila ari direnen kopurua. 133 kasu fiskaltzan daude eta 200 salaketa jarrita.

Hainbat hamarkadatan, beste hainbat lekutan bezala, gurean ere umeak hilik zeudela esan, gurasoei lapurtu eta beste batzuei eman zizkieten mediku, erizain, moja eta emaginek. Orain arte, iruzur horren arduradunek gorde dute engainua, baina familia asko ikertzen hasi ahala ezkutuko gezurra argia ikusten ari da. Kaltetuek berek ere urte askoan isilean gorde dituzte kontu horiek; baina, berena kasu bakana izan ez zela ikusi orduko, agerian utzi dute, ohartu baitira ez direla berak bakarrik antolatutako azpijoko hura azaleratu nahi dutenak.

Senide galduak Orion eta Aian

Orion eta Aian ere badira seme-alabak edo anai-arrebak galdu dituztenak eta

lapurtuak izan zirela uste dutenak, baita adoptatua izan eta uste bera duenik ere. Zazpi kasu daude oraingoz eta bada, ikertzen hasi arren, ezer esan nahi ez duenik ere.

Emerenciana Molinero 1957an jaiotako alabaren bila ari da seme-alaba Iñaki eta Maite Bastosekin batera. Orain dela urtebete hasi ziren ikerketarekin. Medioetan kasuak agertzen hasi zirenean, Emerenciana konturatu zen berari gertatu zitzaionarekin bat zetorrela. Maite lehenengo eta Iñaki gero etxean jaio ziren. Bigarrenarekin, Emerencianak fibroma bat zeukala-eta, ospitalean erditu eta fibroma kenduko ziotela esan zioten. *Ategorrietako ama-etxean umea jaio eta segituan eraman egin zutela kontatu zi-*



gun amak eta, handik pixka batera, moja bat etorri zela, hilda zegoela esanez. Hasieran ezezkoa eman arren, ama egoskortu egin zen eta mojak ekarri zion umea, manta artean bilduta, ez zioten utzi ez ukitzen, ezta besotan hartzen ere, muxu eman eta kendu zioten. Aita joan zenerako, lorategian lurperatuta zegoela esan zioten, azaldu du Maite Bastosek.

Amak, ordea, umea ekarri ziotenean bizirik edo hilda zegoen ez daki. Ez zen mugitu, baina esan dezaket oso polita zegoela, kolore gorri, eta aurpegi txikia zuela, dio Emerenciana Molinerok. Bestalde, gogoan du nola berak Betiereko Sokorro Egunean erditu zen. Erditzen ari nintzela, medikua sartu zen eta bi aldiz ziztatzeko esan zuen. Mojek ziztatu nindutela esandakoan, berriz ziztatzeko eskatu zuen, bera urtero egun horretan medikuek egiten zuten banketera joatekoa zela-eta. Ez zuen beste medikurik jarri, mojak utzi zituen ardurapean, kontatu du Emerencianak.

Bixkiak, biak eramanak

Kandida Arruti 1952an Clinica del Pilarren jaiotako senide bixkien bila ari da. Kontatu digunez, amak noiz edo noiz aipatu omen zuen zerbait, aitik, ordea, ez zuen kasu horietaz hitz egin nahi, hura barruan zuela joan zen. Kandidak gogoa du nola Paco Lobatonek aurkezten zuen desagertutako jendea bilatzeko programa ikusitakoan, telebista itzaltzeko esaten zien beti. Orduan tabua zen abortoa, hildako umeak... aipatzea.

*Aurretik etxean hiru umez erditu zen arren, hauek bixkiak izanik, ospitalera joateko esan zioten Kandidaren amari. Izeba Inaxik lagundu zion eta, jaio orduko, bi ume eder ikusi omen zituen. Baserri-
ra abisua eman eta, aita iristerako, hurrengo eguna zen. Umeak ikusteko eskatu eta ama ondo zegoela, baina umeak hil egin zirela esan zioten. Izebak bi ume handi ikusi zituen, ez zuten sinisten nola hil zitezkeen. Seguru asko pakete bat ekarriko zioten izaretan bilduta eta urrutira ikusita bixkiak haiek zirela pentsatuko zuen. Gelan bi kutxa izan omen zituen;*



“Ama egoskortu egin zen eta mojak ekarri zion umea, manta artean bilduta; ez zioten utzi ez ukitzen, ezta besotan hartzen ere, muxu eman eta kendu zioten. Aita joan zenerako, lorategian lurperatuta zegoela esan zioten”
—Maite Bastos

“Zortzi hilabeteko nengoen haurdun eta, umea jaio zenean, sei hilabeterekin jaio zela esan zidaten. Kezka hori beti izan dut, egun batzutako alde edo asko jota hilabetekoa bai, baina bi hilabete gehiegi zen”
—Dorita Ferrin

“Zortzi anai-arreba gara; lehen bostak baserrian jaio ginen eta, seigarrena jaio behar zenean, amak hankan flebitisa zuenez eta haurdun zegoenez, Donostiara bidali zuen herriko medikuak”
—Lurdes Iburguren

“Clinica del Pilarreko zuzendariak oso ongi hartu ninduen hasieran. Gero, ordea, amaren datuak eskatu eta nik bidali nizkien arren, hortik aurrera ez dut inolako erantzunik jaso”
—Kandida Arruti

“Une honetako gure helburua kasuek preskribatu ez dezaten lortzea da. Fiskalekin hitz egiten ari gara gai honen aurrean zein jokaera duten jakiteko”
—Marian Zubia



baina, aita joan zenerako, berek lurperatu zituztela esan zioten.

Semearen eta ahizparen bila

Dorita Ferrinen kasua beranduagokoa da, 1970ekoa. Kasua antzekoa da, baina Doritak baditu hainbat paper hori frogatzeko-edo. San Juan de Diosen ingresatu ninduten eta umea txikia jaio zela esan zidaten; baina, beste guztiei bezala, niri ere esan zidaten ez kezkatzeko, berak arduratuko zirela. Guk normala zela uste genuen; gainera, fabore bat egiten ari zirela. Hala ere, ospitalean esandakoak eta bere kalkuluak ez zetozen bat. Zortzi hilabetekoanengoen haurdun eta, umea jaio zenean, sei hilabeterekin jaio zela esan zidaten. Kezka hori beti izan dut, egun batzuetako alde edo asko jota hilabetekoa bai, baina bi hilabete gehiegi zen.

Aiako Lurdes Iburguren 1966an jaiotako ahizpa galdu zuen. Zortzi anai-arreba gara, lehen bostak baserrian jaio ginen eta, seigarrena jaio behar zenean, amak hankan flebitisa zuenez eta haurdun zegoenez, Donostiara bidali zuen herriko medikuak. Azaroaren 19an ingresatu eta umea 29an izan zuen. Lurdesen amari ere, gainontzekoei bezala, hil egin zela esan zioten eta, erakutsi ere egin gabe, berak haurraren kargu egingo zirela. Gure amak hasieran ez zuen ezer kontatu, baina azken 25 urteetan nirekin izan nuen eta denboretako umea aipatzen zuen. Hortaz ari zela pentsatzen dut.

Lapurtutako umea den ustea

Marian Zubiak haur lapurtua bera izan zela uste du. 11 urterekin adoptatua zela jakin zuen, baina gai hori tabua izan da beti etxean. Amak esan zidan saiatu zirela urte askotan umea izaten, baina bera antzua zela eta tratamenduekin ere ez zuela lortu, baina adopzioari buruz ez zidaten ezer esan: ordaindu ote zuten, nora joan ziren... Izebak ere ez omen zion gauza askorik kontatu. Adoptatu nindutenean, amak 45 urte zituela eta herritik hiru egun falta eta gero nirekin etorri zirela esan zidan. Amak esan omen zion Escorialera joan zirela, Madrilera, emakume



bat zeukatela zain, ume bat entregatu ziele eta hura joan egin zela, dio Marianek.

Paper artean bila

Horiek guztiak barruan gordeak izan dituzte askok orain dela gutxira arte; besteak beste, gertatutakoa nola frogatu ez zutelako, eta oraindik askok ez duelako.

Kaltetu gehienek Polloeko hilerria egin dute bisita, baina han, esandako datetan, ez da agertzen jaioberririk lurperatuta. Ezezkoa jaso ondoren, batean eta bestean paperak lortzeko saiakera egin dute, nahiz eta asko kostatu edo kasu batzuetan ez lortu.

Polloen ezezkoa jaso ondoren, pentsatu genuen ama erditu zen ospitalean kasu bakarra bazen, ahaztu egingo genuela; baina elkartean esan ziguten data bertsuetan gehiago zirela eta ikertzen hasi ginen, dio Maite Bastosek. Ama-etxean historia klinikorik ez dagoela esan diete eta erregistro zibilean 1975a baino lehenagoko agiririk ere ez dutela. Epaiketa iritsiko da noizbait, denok salaketa jarria baitugu; deituko digute, baina paperik ezean... Une honetan gure txostena fiskaltzan dagoela besterik ez dakigu.

Kandida Arrutiri, daturik ezean, kasua itxiztat eman zioten; hala ere, ez zuen amore eman eta Clinica del Pilarreko zuzendariarengana jo zuen. *Oso ongi hartu ninduen hasieran. Gero, ordea, amaren datuak eskatu eta nik bidali arren, hortik aurrera ez dut inolako erantzunik jaso.*

Dorita Ferrin San Juan de Diosera joan zen paper eske; baina aseguruua partikularra izanda, han bere dokumenturik ez zegoela esan zioten. Umea jaio zenean, inkubadorara eramane zuten eta, beraz, erresidentziara jo zuen eta han eman zizkieten paperak: *Nire ingresokoa, umearen jaiotzakoa, umeari maskarilla jarri ziotela zioena eta hil zela esaten zuena, paper askotan ikusi dugun gurtzearekin, baina heriotzaren arrazoirik gabe.*

Marian Zubia bere eta bere amaren paperen bila hasi eta Diputazioan -han daude adopzio legalen dokumentuak- eta hango paperen arabera, ama adopti-

LORTZEKO ZAILAK DIREN AGIRIAK

Asko dira familian haur lapurturen bat izan den susmoa dutenak edo berak lapurtuak izan direla uste dutenak. Susmo hutsen geratu ez dadin, hainbat pauso jarraitu behar dira, baldin eta erreze-lo hori argitu nahi bada.

Hainbat dokumentu lortu behar dira lehendabizi. Erregistro zibilean jaiotza-agiri literala eta notario-erregistroan adopzio eskritura. Behin idatzi horiek eskuratutakoan, lasai eta arreta handiz irakurri behar dira, izan ere, askotan amaren izena agertzen da dokumentu horietan. Abizenak, ordea, askotan ez dira propioak. Garai hartan ohikoa zen hainbat abizen zehatz jartzekoa adopzioen kasuan: Exposito, Zamora, Bergara, Bilbao... bezalako abizen toponimikoa; asmatutakoak, sarritan erabiltzen zirenak; edo zuzenean adopzioan hartu zituzten gurasoen abizenak.

Haurraren dokumentazioaren bila ari diren familiek, lehenengo, ama erditu zen ospitalera jo behar dute eta han amaren eta jaiotako umearen mediku-historia eskatu. Hilerrian, amaren izenean dagoen umearen hobiratze-agiria lortu behar da. Erregistro zibilean, berriz, umeak 24 ordu baino gutxiago iraun bazuen, aborto-agiriak eta, egun bat baino gehiago izanez gero, edo erregistratuta baldin bazegoen, heriotza-agiria. Azkenik, gotzaindegian, ospitalea kide zen parrokiako bataio-agiria.

Adoptatuek, berriz, Diputazioan adopzio informea, amaren datuak eta mediku-datuak eta adopzio-agiria eskatu beharko ditu; notario-erregistroan, adopzio-eskiritura, akatsik baden frogatzeko; erregistro zibilean, jaiotza-agiri literala; eta gotzaindegian, bataio-agiria, aita-ama ponte-koen izenarekin eta bataio tokiarekin.

Agiri asko, lortzeko zailak, denak idatziz eskatu beharrekoak. Baina argibide gehiago behar izanez gero, SOS Haur Lapurtuak elkartera jo daiteke, hortik aurrera zein pauso eman behar diren jakiteko: 943 577 182 edo 688 860 717.



1. Iñaki eta Maite Bastos, Eme Molinero amarekin. 2. Kandida Arruti. 3. Dorita Ferrin. 4. Lurdes Iburguren. 5. Marian Zubia.

boa ama biologikoa zen. Ustez, La Asuncion ospitalean jaio zenez, hara jo zuen eta *gezurretan ari zirela* konturatu zen. *Erregistro zibilerako ospitaletik ematen duten agirian ginekologoak ziurtatu zuen nire ama adoptiboak erditu ninduela ospitalean. Okerren bat zegoen ustean erregistrotik ospitalera idatzi eta erantzun ziguten erditze liburuan ez dela agertzen nire ama adoptiboaren erregistrorik. Ospitaleko zuzendariak, aldiz, bera 1994an sartu zenetik erditzerik ez dela egiten eta liburuak desagertu egin zirela argitu zidan. 2008ko dokumentuak dio ama ez dagoela erregistratuta eta 2011n zuzendariak libururik ez dagoela.*

Bakoitzak ahal izan dituen agiri eta dokumentuak esku artean hartu eta salaketak jarri dituzte, baina kasu bakoitza bere bidea egiten ari da.

Laguntzaren beharra

Marian Zubiak jakinarazi du Eusko Jaurlaritzatik ikerketa talde bat sortu nahi dutela, 1940tik 1990era bitarteko kasuak argitzeko. *Azken kasua 1997koa da; beraz, hainbat kasu kanpoan geratuko lirake. Erne egon behar dugu, batik batik politikariek. Jakin badakigu guk bakarrik ezin dugula ezertxo ere egin, beren eskutik joan behar dugula, baina bertiere kaltetuak gu garelako jakinda.*

Kasu guztiak argitu nahi dituzte; seme-alabak, anai-arrebak edo guraso biologikoak aurkitu. Bide horretan, ordea, *une honetako helburua kasuak preskribatu ez dezaten lortzea da. Fiskalekin hitz egiten ari gara, zein jokoera duten jakiteko. Laguntzeko jarrera denek dute, aldez aurretik: Batzar Nagusiek, Parlamentuak, Eudelek... Gu egunero gai hau buruan dugula bizi gara; berentzat, ordea, beste gai bat besterik ez da. Beraz, ulertzen dugu zaila dela.*

Haurrak lapurtu zituzten jaio eta berehala, baina gertatutakoa argitzeko asmoz ikertzen hasi zirenei egia jakiteko grina ez die inork lapurtuko.

Tximuak eta platanook

Aurreko batean, fanzine batek esperimentu kurioso baten berri zekarren. Zientzialari talde batek egindako esperimentua hain zuzen ere. Zientzialariek 5 tximu sartu zituzten kaiola batean. Kaiolaren erdian eskailera bat eta, eskailera gainean, platano mordoxka bat zegoen. Tximu haietako bat eskaileran gora abiatu orduko, zientzialariek behean geratzen zirenei ur beroa botatzen zieten, ia irakiten. Denbora bat pasata, tximuren bat eskailerara gerturatzen bazen, besteak kolpeka urruntzen zuten handik, azkar batean. Handik denbora pixka batera, jada ez zen tximurik igotzen eskaileretan barrena, nahiz eta platanoak artean hantxe zeuden.

Orduan, zientzialariek tximu haietako bat aldatu zuten: kaiolatik atera eta, haren partez, beste bat jarri. Tximu berria, bere ezjakinean, platanoak ikusi orduko, han joaten zen eskaileretan gora, eta baita galantak hartu ere.

Tximu haietako bat eskaileran gora abiatu orduko, zientzialariek behean geratzen zirenei ur beroa botatzen zieten, ia irakiten. Denbora bat pasata, tximuren bat eskailerara gerturatzen bazen, besteak kolpeka urruntzen zuten handik, azkar batean.



Pare bat saiakera egin zituen tximu berriak: ez gehiago, ez gutxiago.

Orduan, zientzialariek hasierako tximuetako beste bat aldatu zuten eta aurrekoari pasatako gauza bera pasa zitzaion horri ere. Eta horrela egin zuten beste hirurekin ere.

Azkenean, hortaz, zientzialariak, hasieran bezala, 5 tximurekin gelditu ziren; baina 5 tximu haiek, nahiz ura irakiten inoiz probatu ez, ez ziren inoiz eskaileretan gora abiatzen, beste tximuek astinduko zituzten beldur.

Kontua da tximu haiek ez zeukatela ideiarik ere zergatik ez ziren joaten platano bila. Ziur nago haietako baten bati beren jarreraren zergatiari buruz galdeginez gero, *Ez dakit, gauzak horrela izan dira hemen beti izango zela erantzuna.*

Horrek argi erakusten digu animalia gehienok ezartzen zaizkigun normen, legeen edota ohituren aurrean ez dugula logikan, jatorrian, zergatian... pentsatzen.

Gabon
TABERNA
plater berriak eta pintxoak
Telefonoa: 943 83 06 09

Goizeko
KAFEETEGIA
943 83 28 55
Alta Leburdi 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

ZABALIK! PROBATU EZAZU!
PIZZERIA
KALETA
ARRANTZALE NALEA, 10
TELEFONOA: 943 34 89 46

uranga
inbuzerbitzu
Aliprox
Eusko Gudariak kalea 13-15
ORIO
943 83 36 75

Faroeko bakailoa daukagu
ITSAS MENDI
gutziaz
Euzko Gudariak 11 - 943 24 11 21 - Orio

gizarte
kutxa

TIZALA
kariotasun jokatze
guztiak
tel. 943 83 22 54

libe
dietetika
elkacura aholkularitza
eusko gudariak 35 :: ORIO
| sareko Arrantzale kaleak | 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Gazteleraz diote: '¿Qué es el arte? Morirte de frío'

Artea luxu bat da. Orain arte hala izan da, eta aurrerantzean ere hala izaten jarraituko du. Bai. Baina, ez naiz ari Leonardoren *Giocondaz*, ez; izatez eskuragarri behar luketen egunerokotasunean sartzen den, kultura baten parte den arteaz baizik.

Zertaz ari naizen? Hots, musikaz, filmeez, literaturaz, eta abar.

Zergatik diodan hau? Erraza: gizarte honetako *burutxoek* ez dute sekula onartuko langile behartsu soil batzuek, zein ikasle mukitsuek berek adina pribilegio izaterik. Ez arte horretaz gozatzeko aukera bera dastatzeko aukera izaterik, ez doakoa izaterik.

Agian, esan dudan hau ezkutaturik dagoen -edo ez- argudio bat izan daiteke deskargen zein filmak eta abar *online* ikus-entzuteko aukeraren debekua arrazoitzeko... Beno, ez dakit.

Hala ere, esan behar dut ulertzen dudala obra horien autoreek beren eskubide propioak defendatu nahi izatea, zein beren bizkarretik patrikak betetzen ari diren, *streaming*-eko web orrialde askok egiten duten bezala, -esa-

terako *Megaupload*, itxi berri dutena-, horien aurka agertzea, beren eskubideak urratzen ari baitira. Gainera, esan ere egingo nuke guzti hauek zigortuak izan behar luketela delituegatik. Baina, txikitan esaten ziguten bezala, batzuegatik denok izorratu behar... Marka da, gero! Eta lehen gertatzen zitzaidan moduan, ez zait bidezko iruditzen...

Ez zait bidezko iruditzen *sasijakintsu* horiek, besteen talentuaz aprobetxatzen diren horrekin, denok, langileria xume guztia -geroz eta behartsuago dena krisi garai honetan-, haien ondorioak jasatera kondenatuak izatea... Ez da bidezkoa -gure gelako batek esan ohi zuen bezala *it's not fear!*-

Eta autore horien mailan jarriko naiz orain; neuk ere nire eskubideak defendatu nahi ditut, gu guztien eskubideak:

Zinea atsegin dut, musika maite, eta literatura laketa... -Nahi duzuen bezala esan dezakezue-.

Eta ez didate nahi utzi arte honetaz *free* -dohain eta aske- gozaten. Horrela, bada, nire eskubideak zapaltzen ari dira; eta, beraz, aldarrikapen bat luzatuko dut.

Esan dudan bezala, beren eskubideak defendatzen dituzten autore guztien alde nago; -badakit oso errepikakor geratzen ari zaidala, baina berdin jarraituko dut, denok baititugu geure eskubideak, bla, bla, bla-.

Eta, bien bitartean, zer egiten dute beren maila berean, beren eskubide berak izan ditzagun nahi ez duten *burutxo* horiek guztiek debeku hauen ordezkonponbideren baterako aukera emateko? Ezer ez. Beno, bai, ez dezadan bost zentimetroko pupuarentzat hamar metroko trapurik erabili! Egiten dute, bai; esaterako, zinea garestitu, CD eta DVD-en prezioak igo... Eta, horrela, doan filmak ikusi, eta musika entzutea debekatzeaz gain, diru gehiago gastatzera, xahutzera, animatzen gaituzte! Eta, zer lortzen dute? ... -ezin ezer aurkitu...-

Nire honetan Iker Gurrutxaga

'Ez ote'an ikearriya'

Aurreko artikulu batzuei jarraipena emate aldera, gazteak eta euskararen erabileraren inguruan komentario batzuk egin nahi ditut.

Lehenik eta behin: denok izan gara gazte, eta denok sortu ditugu helduagoentzat *itsusiak* izan diren hitzak. Eneritz eta Garbiñe ados egongo dira baieztapen honenkin, ezta?.

Niri ere *tope* hori sartu zait barruraino. Beno, eta *tope la-sai* aldaera zer esanik ez. Kanpoko hizkuntza batetik etorria izateko, ez dit halako belarriko minik egiten.

Baina, *pelok, jamoya...* eta halako astakeriak esaten dituzten gaztetxoek, neska eta mutilen arteko hitanoa ondo ezberdintzen ez dutenek, helduago garenok erabiltzen ez ditugun -genituen- moldeak erabiltzeko joera handia dute. Nik honi *Citizen Kane* fenomeno deitzen diot. Zergatik? Talde horretakoei entzun izan dizkiodalako gehien halako esamoldeak; haiek zabaldu dituztelako.

Ez ote'an... eta segida bat jarri, izugarri gustatzen zait forma hori. *Ez ote'an ikearriya, ez ote'angoxua...* Molde polita aukeran. *Astakeya* edo *pasa itenk!* moldeak ere hedatuak dira zerbait oso ona dela adierazteko. Eta zerbait gustura egin behar denean edo egin denean, nik orain bezala, *brea mutturra* ateratzen da.

Gizarte honetako burutxoek ez dute sekula onartuko langile behartsu soil batzuek, zein ikasle mukitsuek, berek adina pribilegio izaterik. Ez arte horretaz gozatzeko aukera berdina dastatzeko aukera izaterik, ez doakoa izaterik

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TOLMEZAK - BALBUJA



Santiago Ouzoa - 18 postakutia
Tel. 943 630 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AFNOR kalitate ziurtagiriarena

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
POOLOGIA ZENTROA

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeko asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

KOLON TXIKI
kafetegiak
gostari gokoak

Herriko Euzaratza, 4
ORIO
Tel: 943 83 00 44

kutixi
kafetegiak
GOSTARI GOKOAK

Arriaga 10, 30000 Orio
Tel: 943 14 14 17

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frantziar ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Eteko produktuak: hipak, odaki,
tsokora, txarizo, kaketak...

Euzko Gudari, 25 Tel: 943 83 00 10

Portu
ERRETEGIA

Santo Eneka Auzoa, 16
943 89 44 64
20009 AIA, ORIO

*Arriaga 10, 30000 Orio
Tel: 943 14 14 17*

Lizaso
dekorazioa

Euzko Gudari, 41
Tel: 943 83 07 34 Fax: 943 83 07 32

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tel / Fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20010 Orio (Gipuzkoa)

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

LOBETXU JATETXEN

Euzko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: -Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Euzko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

FISOTERAPIA - Geraketa Aritetadua Nalada Winescuel
FIZIOTERAPIA - Geraketa Aritetadua

sinergia investigación
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Gaia emanda Makrobiotika

Apirilean egingo den ikastaroaren harira, makrobiotika ezagutzak dituen baten ikuspegia ekarri dugu atal honetara.

Makrobiotika beste dietekin uztartuz

Mercedes Osorio naiz, Eki-Lorea belar dendako jabea eta dietetika eta elikadura teknikaria. Dendari lanak egiteaz gain, neurriera egindako argaltzeko dieta mediterranearrak prestatzen ditut eta baita elikadura aholkuak eman ere gaixotasunen bat dutenei, besterik gabe egoki eta osasuntsu jaten ikasi nahi dutenei... Dietak karbono-hidratoen (%50), proteinen (%25) eta grasen (%25) arteko orekan oinarrituak izan ohi dira; arraina, haragia, arrautzak, fruitak eta berdurak dituzten dietak.

Aurrez aipatutako dietak prestatzerakoan, makrobiotikako hainbat elementu baliatzen ditut, betiere esandako elementuen arteko oreka mantenduz.

Makrobiotikak proteina begetalak animalienak baino gehiago sartzen ditu dietetan, grasa gutxiago dutelako. Esnearekin ere gauza bera, begetalenak animalienak baino hobeto asimilatzen direlako eta grasa gutxiago dutelako.

Zereal gehiago eta mota askotakoak erabiltzeko aholkua ere ematen du. Izan ere, garia ezaguna da, semola eran, makarroietan..., baita arrosa ere. Baina aukera zabalagoa da: kus-kusa, olo-aleak, artatxikia, garagarra, zekalea, bulgurra...

Makrobiotikan ere asko erabiltzen dira hiru urteko teak dituzten propietateengatik, baita teinarik ez dutelako ere.

Lekale eta zerealen arteko konbinazioa ere baliagarria da proteina begetala beste era batera lortzeko eta, bere propietateak kontuan hartuta, sesamoa hartzea ere gomendatzen dut.

Itsasoko algak ere gomendatzen dizkiet dietetarako. Mineralen iturri izateaz gain, lekaleekin prestatuz gero hauek on egin diezaguten lortzen da askotan, hau da, haize gutxiago sortzea.

Orain dela zortzi urte ezagutu nuen elikadura makrobiotikoa Zarauzko belar denda batean lanean hasi nintzenean. Ekialdeko elikadura mota batean oinarritutako jateko modua da. Jateko ez ezik baita bizitzeko era ere. Izan ere, makrobiotika hitzaen esanahaia hauxe

da: sekulako bizimodua lortzeko bizitzeko era –Sekulakoa, handia, litzateke *macros* eta bizitzeko era *biotika*–.

Makro hitz horrek adierazten du unitertsoaren etengabeko aldaketan gaudela eta makrobiotikak yin eta yang printzipioaren bidez azaltzen du lege hori. Gorputzaren eta inguruaren arteko barne oreka eta harmonia bilatzen ditu modu ordenatu batean janz eta biziz.

Zerealak dira elikadura makrobiotikoaren oinarri. Jaki bizia da zereala –landarearen haziak eta fruituak bizi berri bat sortzeko beharrezkoak diren elementuak ditu–. Hazi horiek xehetutakoek edo beste modu batean tratatuek baino bibrazio gehiago ematen dute.

Zereal neurriak, ustez, proteina baino zazpi aldiz karbono hidrato gehiagokoa behar luke, baita mineralak baino zazpi aldiz proteina gehiagokoa. Horren arrazoiak honakoa da: gizakia, energia zentrifugoaren eta zentripedoaren arteko loturan 1etik 7rako proportzioan sortua izan da. Beraz, jatekoak ere proportzio horren baitakoak izan behar dira.

Makrobiotikan 30 urteko esperientzia duen Ana Isabel Gonzalez naturopataren arabera, hauek dira proportzioak: barazkiak %25-35, proteina %10-15%, mijo zopa %5 eta zerealak %50-60

Bizi garen tokia eta klima kontuan hartu eta gure ingurura egokitu beharko ginateke. Esaterako, udaran barazki gehiago egonik, yin dela esan genezake ta neguan, berriz, yang alderdiak hartzen du toki gehiago.

Bestalde, makrobiotikan oso garrantz

Zerealak dira elikadura makrobiotikoaren oinarri. Jaki bizia da zereala –landarearen haziak eta fruituak bizi berri bat sortzeko beharrezkoak diren elementuak ditu–.

tzitsua da barazkiak prestatzeko modua. Makrobiotikaren jarraitzaileek nahiago dute barazkiak gordirik ez jatea, horrela, mastekatzekoan, gorputzak ez delako energiari gastatzen. Baina, era berean, ez dute asko egosten bestela elikagaien energia galtzen dutelako. Urtaroak ere badu horretan garrantzia. Izan ere, udan neguan baino gutxiago egosten dituzte barazkiak. Neguan berotasun gehiago ematen diote gorputzari eta egositakoek nisime izena jasotzen dute; udarakoak motzak edo baporezkoak dira.

Fruta konpotan jatea gomendatzen dute azidotasuna gal dezaten. Era berean piperraren, tomatearen, laranjaren eta mandarinen garrantzitasuna eta patata albo batera uzten dituzte.

Nik ez dut erabat makrobiotikoa den dietarik egiten. Bizi garen tokian, uste dut, kulturalki ez gaudela horretarako prestatuta. Hala ere, elikadura oso osasuntsua iruditzen zait sendatzeko eta organismoa garbitzeko.

Horren harira ñabardura txiki bat gehitu nahi nuke: gaixotasun larrien kasuan elikadura makrobiotikoa oso sendagarria izan daiteke eta gorputzeko ph-a orekatzen duelako. Era berean, dieta zorrotza egiteak gehiago lagunduko ligukeen arren, gure gorputzarekin harmonia lortzen laguntzen du.

Nire ustez, makrobiotika gure eguneroko jardunean sartu nahi izanez gero, aditu baten aholkuak jasotzea gomendatuko nizueke. Nik neuk, esaterako, baiditut oinarritzko jakintzak elikaduran gabeziak izan gabe makrobiotikan oinarritzkoak diren hainbat jaki gure dietara egokituko.

Dieta makrobiotiko bat %100ean egin nahi edo arazo zehatz bati aurre egiteko makrobiotika egokia den ala ez jakin nahi izanez gero, ordea, sektore horretan aditua den norbaitengana jotzea gomendatuko nuke; nire kasuan, Ana Isabel Gonzalezengana.

Mercedes Osorio

Dietetikan eta elikaduran teknikaria



Argazkiak ikusteko toki aproposa da Salatxo, eta erakusketak merezi du bisita. KARKARA

Dozena bat argazki eder, emakumeen omenez

Kritika Jon Villate

Argazkilaria, Salatxo tabernan dago ikusgai erakusketa, Aste Santura arte.

Emakumezkoak agertzen zaizkigu Salatxoko argazkietan: batzuk txuri-beltz dotorean eta beste batzuk kolore itzali politean. Gai aldetik aukera garbia egin du egileak: musika eta interpretazioa. Emakumeak dira protagonista guztietan; oholtza gainean kontzertuan ageri dira, abesten batzuetan eta, hain ohikoa ez dena, gitarra

jotzen besteetan. Tartean dugu ezaguna egingo zaigun Luz Casal bera ere.

Martxoa osoan ikusgai izango dituzue Salatxon, andreentzat omenalditxo ere izan nahi duen erakusketan.

Musikarekin kontzentratuta edo konplizitate keinuak eginez ikusleari, artisten interpretazioei indarra ematen asmatu du argazkilariak argiarekin ongi markatutako formakerakutsiz.

Badu meritua berezia horrek ñabardura eta zehaztasunak mantendu eta grisa denak harrapatzea, kolorerik galdu gabe halako foko-argi bortitzekin lan egiterakoan: paperetik atera nahi duten

irudi biziak osatu ditu Jon Villatek.

Enkuadre klasikoak erabiltzen ditu, oso orekatuak, baina badaki, leku zailetik, behetik gora eginda, figura eta argien lerroekin jolasean ibiltzen edo diagonalekin mugimendua sortzen.

Gozatzeko irudiak dira, inondik ere; eta aukera egokia da, Salatxoko Anak eta Marisak egin dutena, beren tabernako txokoa emakumei utzita martxoan.

ANA G. DETXABARRI

Ikasleak idazle Ander Etxeberria

Prezioen garestitzea

2008. urtetik aurrera, oinarrizko zerbitzuen prezioak nabarmen garestitu dira krisiaren ondorioz. Horien artean, garraio publikoaren prezioak izan dira gehien garestitu direnakoak. Euskotrenek, esaterako, %5,99 igo du txartelen prezioa zerbitzu guztietan, eta Renfek ere nabarmen garestitu ditu bere zerbitzuak.



Baina, nahiz eta zerbitzuak garestitu, herritarren errentek ez dute aldaketarik izan. Beraz, krisiari aurre egitea

gero eta zailago da gure herritarrentzat. Ikasleentzat, adinekoentzat, zein langileentzat. Horregatik, garraio publikoaren prezioak zertxobait merkatzea eskatuko nuke, denon onerako izango baita eta bultzadatxo bat izango baita bakoitzaren ekonomiak hobera egiteko.

Garraio publikoaren prezioak zertxobait merkatzea eskatuko nuke, denon onerako izango baita

LURDES
MIRANDA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

He apaitokoa
MARIJO

Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - Injio
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
Telma eta Iñigo, eskutera...
betan diruz amik lanak
egiteko dirketen
Guztaz eta bidex. 1-600 42 82 70» ZARAUTZ

ODITZ

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

» INKESTA

Zer iruditzen zaizu PPK hezkuntza sisteman egin duen aldaketa?

64 erantzun jaso ditu galderak. **%9** alde agertu da, **%82** kontra, eta **%7**k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Zer irudituko litzaizuke azoka ikastola aurreko plazatik Herriko Plazara itzultzea?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunear eta emailtza 315. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA



» ZORITXARRAK!

Aiako gidari burugabeei

Mugimendu asko egoten da Aiako frontoi izkinan, baina oinezkoentzako segurtasuna hobetzeko neurriak erabilia ere –oztopoak, abiadura gutxitzeko pintura, marraz...–, ez da lortu batzuen berekoikeria gutxitzea.

Deskarga egiteko aparkalekuan baimendutako denbora ez da errespetatzen eta, hori gutxi balitz, batzuk kabitu ez eta aparkatzeko espaziotik kanpo uzten dute autoa, bihurgune arriskutsua oztopatuz! Goitik edo behe-tik datorrena kontrako bidera pasa behar da, nahitaez, itsu-itsuan joateko apustua egin.

Burugabekeriak ez al du erremediorik?

Hilabetean, bi gehiago etxean

Alexia eta Bakartxo Oliden ahizpak ados jarri ziren nonbait umea garai beretsurako izateko. Ahizpa zaharrenarena, Alexiarena, lehengusuetan zaharrena izango da, otsailaren 16an jaio baitzen Iraia -biberoiarekin dagoena argazkian-. Unax, berriz, martxoaren 4an jaio zen. Txoko honetatik zorionik beroenak guraso berriei eta senide guztiei.

tel/fax: 943 89 00 69
 Instalazioak: 2008/2009/12

URBIDE

ITURGINTZA, BERGINTZA
 GASA, BAINU ERAKUSKETA

XABIER URRETABIZKALA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Aterain automatikoak

60 urte xerbitzua ematen.

☎ 943 83 1774

Arantza, 31 48810 OIHO

IGLESIAS SARRILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesiasarrilagileak@iglesias.com

24 orduko zerbitzua

- ATEAK IRKIMIZEN DITUHU
- SARRAILA-ILKORNO ALDAKETA
- ATEAK IZTEKO MALBUREI ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

ASADOR XIXARIO

Arantza, 31 48810 OIHO

Zaragueta Eskola

telefonos: 943 89 40 52
 e-mail: 312117az@hezkuntza.net

Bidai ezazu zure albeste!

ZUZENEAN!!!

karkara.com



Emakume kortsarioaren argazkirik ez dugu, baina neska hauek Toki Alain jan-festa egin zutenekoa bai. ARTXIBOA

Larando, Orioko kortsarioa

Oroimenaren kutxa

XI. mendera arteko Orioko historiari erreparatuta, esku bateko atzamarrekin kontatzeko modukoak dira ageri diren emakumeak. Horregatik da poztekoa noizik eta behin, handik edo hemendik, herriko andrazko baten aipamena jasotzea. *Corsarios y piratas* liburuan agertzen da bat: Juana Larando, XVII. mendean Donostian bizi zen alargun oriotarra. Orduko Euskal Herrian emakume alarguna aurrera ateratzeko, aberatsa behar zen, lana gogotik egin edo, bestela, ezohiko bideak jorratu. Hala egin zuen Juanak: 1630ean ostatu bat zeukan

Donostian. Abenturazale jendeak hartzen zuen ostatu han, eta kortsarioek, Donostia orduan haientzako porturik handiena baitzen. Dena zorretan uzten zuten, harrapakin bat eskuratu eta ordaintzeko modua izan arte. Larandok fidatu egiten zien eta kortsarioak itsas bidaietatik bueltan botinarekin etortzean kobratzen zien zorra.

Tolosako Korregimenduko agirietan dago jasota haren berri: emakume oriotarrak San Joan ontzia erosi zuen, patatxe bat, Orioko eta Donostiako bazkide banarekin. Garai hartako historiak ezagutzen duen emakume armadore bakarra da Juana Larando. San Joan ontzia Frantziako kostaldean eta Inglaterrako itsasartean ibili zen. 12.000 dukateko harrapakin

bat lortu ostean, altxamendua izan zen ontzian eta, ondorioz, hondatuta geratu zen. Beste bat harrapatu zuten orduan, hobea, San Pedro hollandarra, eta Zumaian saldu, 11.155 errealetan. Irabazien banaketan istilua piztu zen. Aurretik, gastuak kitatu behar ziren. Orioko erretoreak ere parte zuen, mezak eman zituelako San Juan ontzia itsasoko aurrez aurrekoetan onik atera zedin. Banaketan, Larandok 3.609 erreale jasozituen; Juan Etxaniz kapitainak, 677; interpreteak, 100, eta kortsarioek 86na.

¡ INAKI ITURAIN !

» JAIOTAKOAK

- Ninbe Priego Peña, Orion, otsailaren 23an.
- Laia Sarasua Manterola, Orion, otsailaren 20an.
- Aiur Eskibel Albeniz, Orion, otsailaren 19an.
- Laia Garro Oliden, Orion, otsailaren 16an.


» EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

» HILDAKOAK

- Maria Victoria Sarasua Azkue, otsailaren 29an, Orion, 90 urte
- Ramon Indo Azpeitia, otsailaren 26an, Orion, 93 urte.
- Pilar Atorrasagasti Zubillaga, otsailaren 22an, Orion, 87 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



PERTSIANAK
AKO MAZ
Iturritxo, F.V.E.
Vehetizirik
Motorrak
Tel: 943 83 29 01 Muzikara 600 70 52 27

SOLOZABAL
autoeskola
Eusko Gudari, 30-1, ork
tele: 943 83 08 12

URAITZ
burdindegia
Euzko Gudari, 30-1, ork
tele: 943 83 18 27

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremedak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 832 36 Euzko Gudari, 3

“Internet laguntzeko ona da; baina, larrialdietan, ez irratia bezain segurua”

Juan Gorostegi

Babes zibileko irratizaleen Gipuzkoako koordinatzailea

Irrati transpirenaikoko taldeak urteroko jardunaldia Orion egin du aurten ekainaren 17an; egin nahi duten ekimena azaltzeko. Irratizaleek, beren emisoren bitartez eta, Orio erdigune izanda, Portugal eta Levante lotu nahi dituzte.

IRRATIAGIRREAZALDEGI

Juan Gorostegi, Orion bizi den hernaniarra, irratizale amateurra da orain dela 40 urtetik. Etxean dituen antena eta emisoren bidez komunikatzen da beste irratizaleekin. Zaletasun gisa hasi zen, eta orain larrialdi kasuetan informazioa emateko erabiltzen du irratia.

Irratizale gisara, zein da zure egitekoa?

Irratizale amateurrek gara, baina baita babes zibilekoak ere. Larrialdi egoeretan –uholde, sute, lurrikara...–, berehala konektatuta izaten gara eta informazioa zabaltzen dugu. Erriotan edo mendian arriskua ikusiko banu, irratia bidez komunikatuko nuke. Etxean ez ezik, irratia poltsikoan ere beti eramaten dut; beraz, segituan 112 zenbakira edo Eusko Jaurlaritzara pasatzen dut abisua.

Nik suhiltzaile bati ez diot erakutsiko sua nola itzali behar duen; bai, ordea, larrialdia non dagoen komunikatu. Irratizaleok gure artean ongi komunikatuta gaude, baina Zarauzko suhiltzaileekin, esaterako, ezin dut irratia bidez hitz egin.

Herrietan larrialdi planak abian jartzeko, irratizaleok ere badugu zeresana.

Zergatik elkartu zarete Orion?

Igande goizetan ariketa erako bat egiten dugu hainbat irratizale transpirenaika sarean osatuz; irratia bitartez, Lleidatik Donostiara bitartean larrialdiak kontrolatzen ditugu. Frantziakoek galarazita daukate gure frekuentzian sartzea; beraz, haiekin ezin dugu irratia bidez hitz egin larrialdietan. Irrati amateurrean, aldiz, beste frekuentzietan sar daitezke Frantziakoak, Andorrakoak, Espainiakoak eta Portugalgoak.

Horren harira, Oriotik irten eta bi frekuentziarekin eta, Levante eta Portugal lotu nahi ditugu sareari ferra baten itxura eman. Asmo hori aurkeztea izan da bilera Orion egiteko arrazoia. Ariketa larrialdi egoeran nola konektatu jakiteko da. Ertzainen errepikagailu asko, sekulako dirutza balio dutenak, horrelakoe-tan itzali egiten dira, baita satellite edo telefonoak ere. Beraz, beharrezkoak lirateke telefono seguru bat eta irratia, ahal dela bateriekin, argindarrak ez badago ere. Larrialdien aurrean gu sartzen gara, emisorak beti martxan ditugulako.

“Irratizaleok gure artean ongi komunikatuta gaude, baina Zarauzko suhiltzaileekin, esaterako, ezin dut irratia bidez hitz egin”

“Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak, irratizale asko gaudela eta ekipoak oso garestiak direla jakinik gure egoera aprobetxatu nahi dute”

Zein material erabiltzen duzue?

Irrati emisorak, antenak... materiala gure patrikatik ordaintzen dugu, eta eskaintzen dugun zerbitzua publikoa izanik, erakundeei laguntza eskatu nahi diegu. Gure artean beti gaude kontaktuan irratia bidez, eta Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak, irratizale asko gaudela eta ekipoak oso garestiak direla jakinik, egoera hori aprobetxatu nahi dute. Guk haien babes zibileko edo larrialdi saileko sarean sartu nahi dugu, eta, horrela, laguntzak lortu.

Nongo irratizaleekin duzu kontaktua?

Amateur gisa Bartzelonakoekin, Madrilkoekin, Sevillakoekin, Pariskoekin, Portugalekoekin, Argentinakoekin, Venezuelakoekin, Kubakoekin... noiznahi eta edozer gairi buruz: irratia kontuak, kontu pertsonalak, osasuna...

Teknologia berriak zuen kalterako dira ala abantailak lortzeko balio dizue?

Internet laguntzeko ona da; baina, larrialdietarako, ez da segurua. Konexioa joaten denean ez du balio, nahiz eta aukera bat gehiago izan. Emisora txiki bat badut etxean, eta ordenagailura konektatuta, Sevillarekin ongi hitz egiten dugu, baina teknologia berriak larrialdietarako ez dira irtenbidea.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaintza

■ 18 urteko mutil kolonbiar etorriberrak euskarazko klase partikularrak hartuko lituzke, orain hasi eta uda bitartean. Ahal bada, Orion bertan. Tf.:666 116 641 (Damian).
 Prezioak-eta adosteko. ■ Emakume euskalduna behar dugu Aian urtebeteko haurra orduka zaintzeko. Esperientziaduna hobe. Tf.: 615 730167

Saltzeko

■ Mutilarentzat jaunartze-ko jantzia salgai. Marinel arropa zuria. Neurria:11. Tf.: 620539945.
 ■ Michelin energy175/70 R13bi gupil-azal salgai. Parea 95 eurotan. Merkatuan 63 euro bakoi-

tza. Oso egoera onean, frogatu beharrik gabe, ia berrriak. Tf.:696273435.

Lan eskaera

■ Neska euskaldun oriota-rra lanerako prest: garbiketa lanetan, ostalaritzan... Tf: 665 455 636.
 ■ Aiako mutila edozein lanetan aritzeko prest: garbiketa lanetan, baserrian... Tf: 615 233 534 (Iban).
 ■ Goi mailako ingeniariak LH, DBH eta Batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. klase partikularrak.orio@gmail.com edo Tf: 662 487 964.
 ■ Emakumea garbiketa eta ume edo adinekoen zaintzarako prest. Kanpoan zein etxean biziko litzateke. Tf: 680 825 073.

■ Errefortzu eskolak ematen ditut, DBH eta batxilergo mailako ikasleentzat. Tf.: 635 204 447.

■ Neska oriota-rra edo eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 676441327.

■ Gizonezko etorkina adinekoak zaintzeko eta bes-telako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tf.: 680 234 095.

Erosteko

■ Orio erdialdean lokala erosiko nuke. Gehienez 30 metro koadrokoa. Lur azpikorik ez. Tf.: 657 797 355.

Alokatzeko

■ Eusko Gudari kalean, Kultur Etxe parean, etxea alokatzen dut. Tf.: 647 642 121.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
09	04:50 eta 17:12	10:59 eta 23:14	☾
10	05:31 eta 17:52	11:39 eta 23:56	☾
11	06:13 eta 18:34	12:21 eta	☾
12	06:57 eta 19:19	00:40 eta 13:05	☾
13	07:45 eta 20:09	01:28 eta 13:54	☾
14	08:42 eta 21:11	02:22 eta 14:49	☾
15	09:53 eta 22:30	03:28 eta 15:58	☾
16	11:24 eta	04:49 eta 17:23	☾
17	00:01 eta 12:54	06:19 eta 18:47	☾
18	01:20 eta 14:00	07:34 eta 19:53	☾
19	02:20 eta 14:50	08:29 eta 20:43	☾
20	03:06 eta 15:31	09:12 eta 21:24	☾
21	03:45 eta 16:05	09:49 eta 22:00	☾
22	04:20 eta 16:37	10:22 eta 22:34	☾
23	04:51 eta 17:07	10:53 eta 23:06	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- MARTXOXA
 ■ 9an, Lasa.
 ■ 10 eta 11n, Mutiozabal.
 ■ 12an, Azaldegi.
 ■ 13an, Zulaika.
 ■ 14an, Iriarte.
 ■ 15ean, Larrañaga.
 ■ 16an, Mutiozabal.
 ■ 17tik 23ra, Lasa.
 ■ 24 eta 25ean, Gallo.
 ■ 26an, Iriarte.
 ■ 27an, Larrañaga.
 ■ 28an, Zulaika.
 ■ 29an, Etxeberria.
 Gauetako zaintzako botika: Zulaika
- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
Barrenetxea: Gipuzkoa,17. 943832398 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia,12. 943832970 Zarautz
Larrañaga: S.Frantzisko,16. 943133814 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943830936 Orio
G. Artiano: Zigordia kalea,17. 943134019 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilarxo Enea. 943132983 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:47
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie. Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Jubilatu eta pentsionisten jaia

Martxoak 23an Orioko jubilatu eta pentsionistek beren eguna ospatuko dute. 12:00etan meza izango da Orioko elizan, Egunsenti abesbatzarekin. Ondoren, autobus geltokitik 13:00etan eta 13:30ean Aginagako Errasti sagardotegira joango dira, bazkaria han izango baita 14:00etan. Egunsenti abesbatza eta trikitilariak izango dira gero. Txartelak 20 eurotan salduko dituzte hilaren 12 eta 13an, 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan.

648 487 489 telefono zenbakira. 17:00etatik 21:00etara, Orioko Herri Ikastolako aretoan.

Musika

■ Martxoaren 19an, Orioko Danbolin eta Zumarragako Secundino Esnaola musika eskoletako ikasleen kontzertua. 18:30ean, Kultur Etxean.

Orio

Informatika

- Martxoaren 12an. Skype, deiak internet bidez doan egiteko programari buruzko ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.
- Martxoaren 14an. Youtube, bideoak bilatu, ikusi eta sare-igotzeko programari buruzko ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.
- Martxoaren 15ean 11:00etan eta 20an eta 28an 09:00etan, IT txartela -Informazioaren Teknologien erabilera ziurtagiria- ateratzeko azterketa, KZgunean.

Tailerrak

- Martxoaren 10ean, igeltsertza tailerra. Hamaiketako gaztetxearen kontu. 10:00etan, gaztetxean.

Ikastaroak

- Mandalara taldeak antolatuta, yoga ikastaroa edozein adinekoentzat, ostiraletan, 15:00etatik 16:15era; yoga ikastaroa edadetuentzat, 11:00etatik 11:45era; eta meditazio ikastaroa, ostegunetan, 14:45etik 16:00etara. Kosta tailerrean. Izena emateko: 648 487 489.
- Apirileko lau larunbatetan, sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa, Orioko Basherrri taldeak antolatuta. Irakaslea: Jexux Larretxea makrobiotika aholkularia. 09:00etatik 16:00etara, bazkaria barne. Izen-ematea: Lore burdindegian.

Bingo

- Martxoaren 14an eta 21ean, bingo saioa adinekoentzat. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

- Martxoaren 14an eta 28an, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurrez udaletxera deitu zein trasto aterako dituzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Txapelketak

- Mus, tute eta puntu txapelketa Zaharren Babeslekuan, apirilaren 10etik aurrera. Izen-ematea martxoaren 31 arte.

Hitzaldia

- Martxoaren 15ean, haurrentzako bestelako hezkuntza bide bat lantzen duen Bizi Toki egitasmoari buruzko hitzaldia eta afari-tertulua. 19:00etan, gaztetxean.
- Martxoaren 17an. Mandalara taldeak antolatutako *Ahalmenaren gurpila*, astrologiari buruzko hitzaldia. 10 euro. Tokia aurrez gordetzeko deitu

Aia

Podologia

■ Martxoaren 17an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu 943 1311 44 telefono zenbakira.

Silo-Bolak

■ Martxoaren 13an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

Erromeria

■ Martxoaren 11n. Erromeria Saioa Lizarralde eta Idurre Arriola trikitilariekin; eta martxoaren 18an Izer eta Alabierrekin. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazu plazan.

karkarak

behar zaitu

